

Joxe Mari Carrere Kanariar Uharteetan

I. Berrio

Joxe Mari Carrere ipuin kontalariak hainbat emanaldi eskainiko ditu ostirala bitarte Kanariar Uharteetan. Kanaria Handiko hainbat herritan egingo ditu emanaldiak, hain zuzen ere. Bestetik, bihar hitzaldia eskainiko du Las Palmaseko Liburutegi Nagusian. Eredu narratiboek tokian tokiko nortasunaren eta kultura garapenarekin zer ikusi handia dutela defendatuko du Carrererek, eta homogenizazioaren aurka egingo du.

Bi ipuin kontakizun egingo ditu Kanarietan. Batetik, Kontu kontari, hori bai bizitzia izenburukoa. Ikuspegi ironiko batetik ipuinak kontatzetik bizi daitekela erakutsiko du Carrererek. Entzuleek ofizioan hasi nahi badute nondik heldu izan dezaten nahi dut, azaldu du ipuin kontalariak. Bigarren kontakizunak Izena duen guztia da du izenburu. Euskal tradizioetik hartutako ipuinez osatutako emanaldia izango da.